

L'ANGLE

PHOTOGRAPHIES

HENDAIA-
HONDARTZA

BIARRITZ

DONOSTIA

6, rue des Citronniers - 64700 Hendaye

contact@langlephotos.fr

www.langlephotos.fr

ASTEARTEAK 10.30H/12.30H

OSTEGUNETIK LARUNBATERA 10.30H/12.30H - 14.30H/18.30H

IGANDEAK 10.30H/12.30H

HITZORDU BIDEZ: +33 680062857

SARRERA DOHAINIK

f @

04/2018 - EUS

IN- AUGURA- ZIOA/001

L'ANGLE PHOTOGRAPHIES-EK AURKEZTEN DITU

xavier **BLONDEAU**-*Présence obscure*

david **TATIN**-*Bestiaire*

2018KO MAIATZAREN 5ETIK EKAINAREN 6RA

INAUGURAZIOA: 2018KO MAIATZAREN 4AN, 18:00ETATIK 21:00ERA

L'ANGLE

PHOTOGRAPHIES

erakusketak_bitartekaritzak_ikastaroak

/001

BIOGRAFIA & IBILBIDEA

Bere bidaietan, basamortuaren handitasuna ezagutu izan duen horietan, norbanakoak bere inguruan duen lekuaz galdetzen dio Xavier Blondeauk bere buruari. Galdera horiei erantzuteko helburuz, argazkigintzari ekiten dio. Horrela, irakasten eta ikertzen zebilen bitartean, 2009an, norbanakoari buruzko bere argazki-lana berreskuratu zuen.

Serie edo multzoen bitartez, gero eta erantzun intimoagoak bilatzen ditu; bere lana egituratzen duen arren, bere bilakaerak senez egin du aurrera, forma estetiko garbiz jantzia. Zirrarez

gidatuta soilik, abstrakzioan barneratzen da, intimitatea bilatuz, irudikapen grafikoa lortu arte eta iruditeria hori erreallitatearekin uztartzea du helburu. Bere argazkietan ezbaia nabari da, eta horrek publikoa bultzatzen du argazkilariak bere bilaketaren erantzun modura erakusten duena, bere begiradarekin berrinterpretazera.

2011z geroztik, Xavier Blondeauk jarduna areagotu egin du eta erakusketak kateatzen ari da, pixkanaka-pixkanaka, argazki multzo desberdinak erakusten doalarik.

x a v i e r
BLONDEAU

Présence obscure,

Badira leku edo egoerak, non gizakirik ez izan arren, objektuez haratago, presentzia bat nabari den. Iragan hurbilaren hondarrak dituen presentzia "ilun" honek objektuei beste dimentsio bat ematen die - izateko gizakiaren arrastoa beharko balute bezala -. Gauaren iluntasuna edo goizaldeko lanbro hasiberria beste mundurantz garamatzan txalupari bilakatzen dira, presentzia iheskor hori ulertzeko modua hobetuz.

Horregatik, gaueko hiri-inguruak interesatzen zaizkio presentzia ilun horri. Giza presentziarik ez duten unibertsoak, baina, ezinbestean, gizakirantz garamatzatenak. Berak eraikitako ingurune artifizial horrek eta pertsonagandik aldentzen dela dirudienak, aztarna apurrezina uzten du. Traza hauek baino jatorri intimoagorik aurki al genezake?

d a v i d
TATIN

BIOGRAFIA & IBILBIDEA

1975ean Arlesen jaio zen. David Tatinek maiz argitaratzen ditu eta erakusgai jarri bere serie pertsonalak, are gehiago 2013tik aurrera, urte horretan argazkigintzan osotasunez aritzeko erabakia hartu baitzuen.

Berdin erabiltzen ditu teknika zaharra zein digitala. Eskualdetako parke naturaletarako lanak egiten ditu eta Orbisterre elkarterako ikastaroak gainbegiratzen ditu -www.orbisterre.fr-. Diziplina anitzeko formakuntza du, besteak beste, Arleseko Goi Mailako Argazkilaritza Eskola Nazionalan ikasia da eta Biologiako masterra du.

«Bai natura basatian eta baita hirikoak diruditen parajeetan ere, nire argazkiek bizidunarekiko, lurraldearekiko eta gizakiak utzitako aztarnekiko harremana zaltzantzan jartzen dute. Natura zaintzen eman ditudan urteen eraginez, gizakiaren eta naturaren arteko loturak bereziki kezkatzen nau. Ertzak eta tentsio guñeak zeharkatzea gustatzen zait, ibiltzea eta zeharkatzen ditudan espazio horiez

bustitzea. Denboraz jabetzea ezinbestekoa da. Bai argazkia egiteko prozedurari dagokionez [doitze luzea eta geldia eskatzen duten argazki teknikak erabiliz] eta baita desplazamenduari dagokionez ere: ibilaldiak eta, maiz, ibilaldi luzeak. Espazio hauek aurkezten zaizkigun bezalaxe begiratzeak gure lekura eta gure izate xumera itzultzen gaitu.

Munduan zehar bizi eta ibili, beste batzuekin partekatu eta bizidunarekin harremanetan jarri. Nire argazki-praktikak gure inguruarekiko dugun erlazio aberatsa erakutsi nahi du.

Dela paisaien bitartez, bizitza basatiaren bitartez, gizakiak utzitako aztarnen bitartez edo errebelatzeko metodo bat edo beste erabiltzearen eraginez, gure lurraldean dugun behatzaille eta aktore jarrerak sortzen du nigan argazkiak egiteko beharra. Erabiltzen dugun eta maiz gure beharretara egokitzen dugun leku partekatatu honi gainbegiratu ematen saiatzen naiz.

Bestiaire,

Mugaren bat zeharkatzea gustatzekotan, hori egunaren eta gauaren artekoa da. Animaliak behatzeko une ezin hobea da baina zirrara berreraikitzea zaila gertatzen da, izan ere, unerik ederrenak, intentsitate handienekoak, askotan, animalia baten soslai isila baino ez baitira. Inpresiorako hainbat teknika ikertu eta gero, argazki mota hauetarako cianotipia aukeratu dut. Azken kolorea emateko tean murgiltzen ditut eta hori da irudia urdina ez ikustearen arrazoia. Ba al da, berez teknika aleatorioak diren ikerketak berregitea baino zerbait naturalagorik? Teknika non eguzkia funtsezko zatia den. Bilduma honetan eragina duen Robert Hainardek zera esan zuen: "behatzen dugun azeria bezalakoa da erreallitatea: une batez gure ikuspegitik at geratzen da eta dagoeneko ez dago uste genuen lekuan".



© Xavier Blondeau

/001

L'ANGLEk,
bere lehen
erakusketan,

gure behatzaile lana eta ingurunearekin partekatzen duguna aztertzen duten bi argazkilari artisten lana aurkezten digu. Gaia bikoitza da, ez egotearen iruditeria eta egote isilaren errealitatea bizikideak dira. Egunaren eta gauaren, agerikoaren eta misterioaren, gizakiaren eta animaliaren, hirikoaren eta basatiaren artean dagoen muga. Ezkutaketan jolasten ari dira.



© David Tatin